

% 2 bidaiari gehiago etorri da Euskal AEra 2011ko urrian

Urriko ostatu-gau kopurua % 0,3 gehitu da

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Eustaten datuen arabera, 2011ko urrian 210.686 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 3.705 gehiagok; horrenbestez, % 2ko gehikuntza izan da. Araban % 8 igo da etorritako bidaiari kopurua eta Bizkaian % 5; alabaina, Gipuzkoan % 5 jaitsi da kopuru hori.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak ez du aldaketarik izan (% 0) eta atzeritik etorritakoen kopuruak % 6 egin du gora. Estatuko bidaiari gehiago izan da Araban eta Bizkaian, % 5 eta % 4 igo baitira, hurrenez hurren, lurralde hauetako kopuruak; Gipuzkoan, aldiz, % 8 jaitsi da Estatuko bidaiari kopurua. Hiru lurraldeetan gehitu da atzeritik etorritako bidaiarien kopurua: Araban % 22 igo da, Bizkaian % 7 eta Gipuzkoan % 2.

Estatuko bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekoei dagokienez, gehien hazi dira Errioxatik, Kantabriatik, Andaluziatik, Valentziako Erkidegotik eta Gaztela-Mantxatik etorritakoenak. Baina gutxitu egin da, besteak beste, Madril, Asturias eta Nafarroatik etorritakoen kopurua. Atzeritarren artean batez ere Alemaniatik, Erresuma Batutik, Italiatik eta Europako Ekialdetik etorritakoen kopurua gehitu da. Eta jaitsi egin da Frantziatik, Portugaldik, Belgikatik, Danimarkatik eta Holandatik etorritakoen kopurua.

2011ko urrian 399.677 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko urriarekin alderatuta ostatu-gaua igaro dutenen kopurua % 0,3 gehitu da, guztira ia 1.107 ostatu-gau gehiago igaro baitituzte. Igarotako ostatu-gau kopuruak urte arteko bilakaera positiboa izan du Araban (% 5eko igoera) eta Bizkaian (% 1eko igoera); baina Gipuzkoan kopurua % 3 jaitsi da.

Batez besteko egonaldiaren iraupenak behera egin du Euskal AE osoan eta 2010eko urriaren aldean: 1,93 eguneko egonaldia izan zen 2010eko urrian eta urte honetakoan 1,90 egunekoa. Lurraldeka, Araban 1,85 egunetik 1,79 egunera jaitsi da egonaldia, eta Bizkaian 1,95 egunetik 1,88 egunera; baina Gipuzkoan gora egin du: 2010eko urrian 1,93 egunekoa zen eta 2011ko urrian 1,97 egunekoa.

Euskal AE osorako, plazen okupazio mailak ez du aldaketarik izan (% 0), 2011ko urrian % 48,45ekoa izan baita. Araban okupazio mailak % 4 egin du gora: 2010eko urrian % 40,86koa izan zen eta urte honetako urrian % 42,39koa. Bizkaian % 2 egin du behera, 2010eko urrian % 50,14koa izan zen eta 2011ko urrian % 49,31koa. Azkenik, Gipuzkoan ez da aldaketa handirik gertatu: 2010eko urrian % 50,29ko okupazioa izan zen eta urte honetako urrian % 50,22koa.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

Euskal AEra etorritako bidaiari kopurua % 1 jaitsi da eta igarotako ostatu-gau kopurua % 9, 2010eko urriarekin alderatuta

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: nekazaritza-turismoko establezimenduetan 10.316 bidaiari erregistratu dira urrian; beraz, nekazaritza-turismoko establezimenduetan 2010eko urrian erregistratu zirenekin alderatuta % 1 gutxiago etorri dira. Lurraldeka, Araban ez da aldaketarik izan (% 0), Bizkaian % 12 egin du behera eta Gipuzkoan % 5 igo da. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 4 jaitsi da Euskal AEn: Gipuzkoan % 3 igo da, Araban % 8 jaitsi da eta Bizkaian % 11 jaitsi da. Erkidegora % 31 atzerritar gehiago etorri da; horien kopuruak nabarmen egin du behera Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, atzerritar kopuruak gorakada nabarmena izan du, ehunekoak aintzat hartuta.

Urrian, guztira, 23.278 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean % 9 jaitsi da gau kopurua. Urte arteko hazkunde tasak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban % 7 jaitsi dira, Bizkaian % 16 eta Gipuzkoan % 5.

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2010eko urriko batez bestekoaren aldean. Aurreko urtean 2,45 egunekoa izan zen, eta urte honetako urrian 2,26 izan da. Beherapen hori hiru lurraldeetan gertatu da. Araban % 7 jaitsi da batez besteko egonaldia, 2010eko urrian 2,23 egunekoa izan zen eta, baina 2011ko urrian 2,08 egunekoa. Bizkaian % 5 jaitsi da batez besteko egonaldia, 2010eko urrian 2,43 egunekoa izan zen eta 2011ko urrian 2,31 egunekoa. Eta Gipuzkoan % 10 jaitsi da batez besteko egonaldia, 2010eko urrian 2,57 egunekoa izan zen eta urte honetako urrian 2,32 egunekoa.

Plazen okupazio mailak % 10 egin du behera: % 20,93tik % 18,81era igaro da okupazioa, hiru lurraldeetan egin duelako behera. Araban % 12 jaitsi da, Bizkaian % 14 eta Gipuzkoan % 7.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	10 2011	(%)	10 2010	(%)	Δ %	10 2011	(%)	10 2010	(%)	Δ %	10 2011	(%)	10 2010	(%)	Δ %	10 2011	(%)	10 2010	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	399,677	100	398,570	100	0	59,411	100	56,848	100	5	196,408	100	193,947	100	1	143,858	100	147,775	100	-3
Estatukoak	269,541	67	270,268	68	0	46,322	78	44,722	79	4	127,959	65	123,965	64	3	95,260	66	101,581	69	-6
Atzerrikoak	130,136	33	128,302	32	1	13,089	22	12,126	21	8	68,449	35	69,982	36	-2	48,598	34	46,194	31	5
Hiriburua	257,639	64	260,016	65	-1	43,444	73	43,102	76	1	132,778	68	132,614	68	0	81,417	57	84,300	57	-3
Litoral	43,997	11	42,408	11	4	-	-	-	-	-	12,389	6	11,424	6	8	31,608	22	30,984	21	2
Barnealdea	98,041	25	96,146	24	2	15,967	27	13,746	24	16	51,241	26	49,909	26	3	30,833	21	32,491	22	-5
BIDAIARIEN SARRERAK	210,686	100	206,981	100	2	33,122	100	30,685	100	8	104,650	100	99,645	100	5	72,914	100	76,651	100	-5
Estatukoak	142,633	68	143,002	69	0	26,071	79	24,908	81	5	69,849	67	67,251	67	4	46,713	64	50,843	66	-8
Atzerrikoak	68,053	32	63,979	31	6	7,051	21	5,777	19	22	34,801	33	32,394	33	7	26,201	36	25,808	34	2
Hiriburua	132,097	63	133,819	65	-1	22,904	69	21,759	71	5	67,381	64	66,480	67	1	41,812	57	45,580	59	-8
Litoral	22,077	10	19,626	9	12	-	-	-	-	-	7,843	7	6,438	6	22	14,234	20	13,188	17	8
Barnealdea	56,512	27	53,536	26	6	10,218	31	8,926	29	14	29,426	28	26,727	27	10	16,868	23	17,883	23	-6
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1.90		1.93		-2	1.79		1.85		-3	1.88		1.95		-4	1.97		1.93		2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	48.45		48.62		0	42.39		40.86		4	49.31		50.14		-2	50.22		50.29		0
Hiriburua	56.64		57.51		-2	45.66		45.41		1	58.79		60.57		-3	60.84		60.97		0
Litoral	48.91		47.14		4	-		-		-	33.64		29.96		12	59.49		59.78		0
Barnealdea	35.00		34.63		1	35.47		31.10		14	37.77		38.48		-2	30.99		31.31		-1
BETETZE-MAILA GELAKA	57.39		57.99		-1	51.43		48.57		6	58.64		61.96		-5	58.65		57.14		3
Hiriburua	67.26		69.14		-3	56.46		54.17		4	69.37		75.08		-8	71.59		70.05		2
Litoral	54.81		51.98		5	-		-		-	38.51		34.72		11	65.12		63.99		2
Barnealdea	42.18		41.43		2	40.81		35.47		15	45.33		46.75		-3	38.61		37.05		4
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	23,278	100	25,557	100	-9	5,359	100	5,759	100	-7	6,182	100	7,397	100	-16	11,737	100	12,401	100	-5
Estatukoak	20,355	87	22,546	88	-10	4,801	90	5,537	96	-13	5,341	86	6,238	84	-14	10,213	87	10,771	87	-5
Atzerrikoak	2,923	13	3,011	12	-3	558	10	222	4	151	841	14	1,159	16	-27	1,524	13	1,630	13	-7
BIDAIARIEN SARRERAK	10,316	100	10,439	100	-1	2,578	100	2,578	100	0	2,674	100	3,040	100	-12	5,064	100	4,821	100	5
Estatukoak	9,275	90	9,643	92	-4	2,322	90	2,520	98	-8	2,413	90	2,702	89	-11	4,540	90	4,421	92	3
Atzerrikoak	1,041	10	796	8	31	256	10	58	2	341	261	10	338	11	-23	524	10	400	8	31
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2.26		2.45		-8	2.08		2.23		-7	2.31		2.43		-5	2.32		2.57		-10
BETETZE-MAILA PLAZAKA	18.81		20.93		-10	19.32		21.93		-12	15.90		18.57		-14	20.55		22.14		-7
BETETZE-MAILA GELAKA	20.63		22.32		-8	20.43		23.23		-12	17.85		20.09		-11	22.66		23.52		-4

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01.

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua